

**René Bedecarraxen kantütegia**  
**IKASeko materialaren grabaketa 2016 abenduan**

**Aizeak egotxi dü**

Aizeak egotxi dü  
Sagar ederrena  
Zer malürra  
Aizeak bilaizi dü  
Lilirik eijerrena  
Zer malürra  
Zer malür handia

Hitzak : René Bedecarrax  
Ahaidea : Pierre Bedecarrax  
Kantaria : Argitxu Camus

**Alor gaineko bidean**

Alor gaineko bidean  
Igaran astelehenean  
Ez bazen asteartean  
Erbi bat ikusi nüan  
Büztan xuri batekin

Hantik jin asteazkenean  
Ez bazen ostegünean  
Ihizlaria ikusi nüan  
Bere txakürrarekin  
Nik aipatü ber bidean

Eta ondoko ostiralean  
Edo neskenegünean  
Pettirik erbia jan züan  
Bere familiarekin  
Eta ondarrak igantean

Hitzak :René Bedecarrax  
Ahaidea : Nicolas Urruty  
Kantariak : Urruty ahizpak

**Apoak baratzean**

Apoak baratzean  
Marranken lasterkan  
Karakoilak harritürik  
So beren xilotik  
Karakoil eta marrankak  
Hor dira apoak  
Egon gorderik  
gorderik  
gorderik beti !

Hitzak ::René Bedecarrax  
Ahaidea : Pierre Bedecarrax  
Kantaria : Lüxi Agueraray

## Asto txipia

1

Asto txipiak  
Bortüko bidean  
Ardien gibelean  
Karreatzen dü anhoa

2

Ezkaratz zolan  
Asto xaharra hil da...  
Asto xaharra joan da...  
Bere bizian  
Lanez lehertüa  
Astoen zelüalat  
Hi ha, hi ha !  
Gaixo, gaixo astoa

3

Nork urtuki dü  
pluf pluf pluf  
Nork, nork, nork  
Harri biribila  
hureala ?  
Ühaitz zolan  
Orai  
Hila da  
Harri biribila

4

Etxea zahar zen  
Ordüan saldü züen  
Etxe etxe maitea  
Betikoz galdüa  
Ai eia ! Ai eia !

5

Üdan eki gorria  
Tziauri Pierra itzaleala  
Ekia gorri da  
Larrazkenean aizea  
Gaixo gaixo astoa  
Aizea basa da  
Negü beltzean elürra  
Xuri xuri xuria  
Elürra xuria  
Bedatsean txoria  
Kantan alegrantzian

Hitzak : René Bedecarrax  
Errailea : Jean Berdot

### **Behin bazen**

Behin bazen...  
Arren zer bazen ?  
Xerri bat musurkatzen  
mrr mrr mrr  
Bele beltz bat kantatzen  
Kro a Kro a  
Oilo gris bat errüten  
Kot kot kodatx  
Txainküka ebilten ahate bat  
Kuın kuın kuın  
Gatü txakür aharratzen  
Pff pff pf Hau hau hau

Hitzak : René Bedecarrax  
Erraileak : Xiberoko erakasleak

### **Bi ogi laka**

Ha ha ha  
Bi ogi laka  
He he he  
Heben franko ele  
Hi hi hi  
Zü, ni eta hi  
Ho ho ho  
Begi eta aho  
Hü hü hü  
Alde orotarat oihü  
To ! To ! Hü ! Bohü ! Bohü !

Hitzak René Bedecarraxen  
Erraileak : Xiberoko erakasleak

### **Elorri txista**

Elorri txista batetarik  
Badüt erhi bat hantürik  
Ez fida elorri beltzari  
Ez eta ere xuriari  
Ez kasü egin koloreari  
Betik zirade tronpatürik

Hitzak René Bedecarrax  
Ahaidea : Elsa OIiarj  
Kantaria : Laura Etchegoyhen

### **Errazü Ü**

Errazü ü  
Errazü u  
Bero da süa  
Azkar hegoa  
Sütondo xokoan

Ez dūgū axolik  
Aufa! Aufa!  
Buha beza hegoak,  
Bero da sūa !

Hitzak René Bedecarrax  
Erraileak : Xiberoko erakasleak

**Gatūa sūtondoan**

Gatūa sūtondoan  
Ron ron ron m rron m rron  
Txinka bat jauzi da  
Gatūa ezkapī da  
Gatūa arrajin da  
Kanpoan beita hotza  
Frr fir fir Karrua  
Kanpoan karru beltza !

Hitzak : René Bedecarraxen  
Ahaidea : Oihan Oliarj  
Kantariak : Laura Etchegoyhen eta Oihan Oliarj

**Goizanko ihitzean**

Goizanko ihitzean  
Ebili niz ertūtsik  
Hola niz osagarrian  
Hūrrūn zoazte marfundiak  
Eta oski egileak  
Eta oski saltzaleak

Hitzak : René Bedecarrax  
Ahaidea : Maika Etxekopar  
Kantaria : Florent Elissondo

**Gorri berde hollī**

Gorri gorri gorri da  
Txori baten papoa  
Berde berde berde da  
Oihaneko ostoā  
Hollī hollī hollī da  
Alorreko artoa  
Urdin urdin urdin da  
Gain gaineko zelūa  
Beltza beltza beltza da  
Gatūerdiko ūlūna  
Xuri xuri xuri da  
Erorten den elūrria  
Ardiaren eznea  
Haur ttiapiaren arima

Hitzak : René Bedecarrax  
Ahaidea : Mixel Etxekopar  
Kantaria : Mixel Etxekopar

### **Jakes**

Jakin düt Jakes  
Bekatz dela ene xerriez  
Jakin dit Maties  
Jelos dela ene behiez  
Erran behar deizüet  
Bai Jüsef  
Bai Juanes  
Bürüzagi nizala kabalez

Hitzak : René Bedecarraxen  
Ahaidea : Jean-Michel Bedaxagar  
Kantaria : Jean-Michel Bedaxagar

### **Kapar masüsak**

Kapar handiaren erditan  
Kapar masüsak ehünka  
Hariekin kausitüren konfitüra hoberena  
Karrakatüren dü goxoki  
Züen eztarri xokoa  
Kapar handiaren erditan  
Kapar masüsak milaka

Hitzak : René Bedecarrax  
Erraileak : Xiberoko erakasleak

### **Llapa llapa**

Llapa llapa  
miñiñak  
Edaten dü eznea  
Llapa llapa  
Beti llapa  
Arrosa dü mihia

Hitzak : René Bedecarraxen  
Erraileak : Xiberoko erakasleak

### **Lloperen oilo xuria**

Lloperen oilo xuria  
Arrautze errülea  
Llabür dü errütea  
Gero kokodaxka  
Arrautze küxkua  
Hanitx düt maitea  
Lloperen oilo xuria  
Da maitagarria  
Ai ai ai oiloa  
Lloperen oiloa  
Ai ai ai oiloa  
Ai ai ai oiloa  
Oilorik hoberena

Hitzak : René Bedecarrax  
Ahaidea : Johaño Bedaxagar  
Kantaria : Maiana Uhalt

### **Oski ferratüak**

Oskaxe aldeko bidean bazen soldado ttipi bat  
Joaiten hardit bere kasernalat kantatzez bere kantorea

### **Oski ferratüak pezü pezü Soldadoen oskiak zoinen diren pezü**

Erreka baten kantüan goxoki zen deskantsüan  
Belar berriaren gainean bere oski pareta pausüan

Maddi ta Petteren alaba soldadoari hüllantüak  
« Errak errak erakuts itzadak hire oski ferratüak »

Hitzak : René Bedecarrax  
Kantariak : Taldea

### **Sabaiko sagüa**

Sagü elibatek sabaian lokartürük  
Jaten dütüe arto bihiak  
Bai eta intzaurrak  
Bai eta negü sagarrak

Hitzak : René Bedecarrax  
Erraileak : Xiberoko erakasleak